


GUILLERMO ROA ZUBIA
Elhuyar Zientziaren Komunikazioa

ITZIAR LAKA HIZKUNTZALARIAREN GOMENDIOZ



Ikaslearen garuna eta konplexutasuna

BI BIDAIA INTERESGARRI

Ikastea prozesu miresgarria da. Organo baten funtzionamendu konplexua eskatzen du, garunarena alegia. Egia da oraindik ez dakigula zehatz-mehatz nola funtzionatzen duen garunak eta zein diren ikaste-prozesuaren sekretu guztiak, baina gero eta ikerketa hobek ari dira egiten esparru horretan. Hain zuzen ere, ikaste-prozesua ikertzen du Itziar Laka Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saileko irakasleak, EHUko Letren fakultatean. Gaian aditua da eta horri buruzkoa da gomendatu duen liburuetako bat. Horrekin batera, bere esparruko ez den oso bestelako liburu bat ere gomendatu du: konplexutasunari buruzko bat.

Lehenengoa *The Infinite Gift* liburua da, Charles Yang estatubatuarrena. “Yang irakaslea Ikerbasque antolatzen duen Zientzia Foroan izan genuen hizlari”, gogoratzen du Lakak. “Liburu atsegin eta erakargarri horretan, haurrek hizkuntza nola ikasten duten azaltzen digu, eta, horren haritik, hizkuntzaren egitura eta izaerari buruzko hainbat kontu jakingarri agertzen dira. Arrakasta handiko liburua da, eta espero dezagun ikertzaile horrek dibulgazio-liburu gehiago idaztea laster”.

i

The Infinite Gift

Charles Yang

Scribner argitaletxea

224 x 152 mm

ISBN: 978-1451612998

Complexity: A guided tour

Melanie Mitchell

OUP USA argitaletxea

231 x 152 mm

ISBN: 978-0199798100

Liburu horretan, egileak Noam Chomsky adi-tuaren teoria azaltzen du, alegia, gizakiak hizkuntza ulertzeko ahalmenak osagai genetiko garrantzitsu bat duela.

Lakak gomendatzen duen bigarren liburua zeharo ezberdina da. Melanie Mitchell estatubatuarren *Complexity: A guided tour* liburua da. Mitchell konputazio-irakaslea da, informatikaria, eta esparru askotako konplexutasunaren gaia aztertzen du, betiere ordenagailu baten konputazioarekin erlazioatuta.

“Eguraldia, txori-aldrak, hodeiak, hizkuntza, burmuina, gizartea... denak dira sistema konplexuak”, dio Lakak. “Konplexutasunaren teoriak horien arteko antzekotasunen zergatia ikertzen du, ba ote da sistematikotasunik antzekotasun horietan? Alor horretan aditua ez naizenez, esan dezaket liburu honek ematen duela gai honi buruz ezagutzen dudak azalpen argien eta erakargarriena. Bazter batzuetan matematikaren aldapan gora egin behar da, eta denak ez gara tontorrera helduko, baina, hala ere, merezi du liburu honek proposatzen digun ibilaldiari ekitea”.



SAREAN+